


Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %2,7 gehitu ziren 2017ko hirugarren hiruhilekoan

Gasolindegirik gabe, %3,1 gehitu prezio finkoetan

Eustaten arabera, 2017ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmentak %2,7 gehitu ziren prezio finkoetan aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Gasolindegia sartu gabe, salmentak %3,1 gehitu urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %1,2 erreala gehitu, urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Elikagaien salmentak %1,8 gehitu 2017ko hirugarren hiruhilekoan; Gainerako produktuenak %4,2 eta Automobilgintzarako erregaiarenak %1,4 jaitsi, beti ere 2016ko aldi beraren aldean eta prezioen eraginik gabe.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %3,0 jaitsi; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %4,3 gehitu.

Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %11,2; Kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan %9,3; Etxeko ekipamenduan espezializatuan %3,1; Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %-1,6; dena prezio finkoetan.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. III/2017

	PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera		
Euskal AE	2,7	1,2
Araba/Álava	2,4	1,5
Bizkaia	3,1	1,3
Gipuzkoa	2,3	0,9
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera		
Elikagaiak	1,8	1,2
Elikagaietan espezializatuta	-3,0	0,5
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	4,3	1,3
Beste produktuak	4,2	1,5
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-1,6	-1,9
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	3,1	2,5
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	9,3	1,1
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	11,2	3,3
Automoziorako erregaia	-1,4	-0,3
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	3,1	1,4
ENPLEGU INDIZEA		
Euskal AE	0,8	0,1

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMI)

Salmentak hiru lurraldeetan gehitu urte artean. Gipuzkoan %2,3; Bizkaian %3,1; Araban %2,4; denak errealak. Aurreko hiruhilekoaren aldean, Araban %+1,5; Bizkaian %+1,3; Gipuzkoan %+0,9.

Euskal AE osoan, 2017ko bigarren hiruhilekoaren aldean, merkataritzako sektorean okupatuen kopurua %0,8 gehitu 2017ko hirugarren hiruhilekoan; %0,1 aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62